

## KONTROL MOZIOA

### **DONOSTIAKO UDALAREN ETA HAURRESKOLEN PARTZUERGOAREN ARTEKO III. LANKIDETZA PROTOKOLOA DELA ETA**

Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2018ko maiatzako Pertsonen Zerbitzu Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

## **JUSTIFIKAZIOA**

Behin baino gehiagotan adostu dugu hezkuntza guztion intereseko gaia dela eta elkarrekin aurrera egin behar dugula, baino Udal Gobernuak ez da konpromiso hori betetzen ari.

2018ko maiatzean, Udal Gobernuak 2018ko martxoko ohiko udalbatzarrean onartutakoa betetzen ari ez zela-eta, EH Bildu udal taldeak interpelazioa erregistratu eta aipatutako akordioa gogorarazi behar izan genuen.

Erregistroa egin bezain pronto, Hezkuntza zinegotziak, maiatzaren 12an, Udalbatza osatzen dugun taldeetako ordezkariok Donostiako Udalaren eta Haurreskolen Partzuergoaren arteko III. Lankidetzarako Protokoloaren zirriborroa aurkeztu zigun eta 2018ko ekaina eta uztaila bitartean onartuko zela aurreratu zitzaigun.

Aldiz, 2018ko maiatzez geroztik ez dugu protokoloaren berri izan eta gure harridurarako, 2018ko irailaren 4ko Tokiko Gobernu Batzordearen erregistroaren bitartez jakin genuen sinatutako III. Lankidetzarako Protokoloak ez zituela maiatzean aurkeztutako konpromisoak jasotzen. Hezkuntza zinegotziak udal taldeok aurkeztutako Lankidetzarako Protokoloan, adibidez, Loiolako Erriberan eta Grosen haurreskolen zabalkundea jaso zen eta onartu den akordioan soilik, II. Protokolutik datorren Jolastokietako haurreskola jaso da.

Berriro ere, Udal Gobernuak Haurreskolen Partzuergoarekin sinatutako akordioa ez du haurreskoletako ordezkariarekin ezta Udalbatza osatzen dugun taldeekin ere partekatu. Gainera, Udal Gobernuak komunikabideen bitartez publiko egin zituen haurreskolen inbertsioak (Gros eta Erribera) ez bermatzeaz gain, Jolastokietako haurreskolan atzerapenak eman dira.

Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

## **KONTROL MOZIOA:**

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari onartu aurretik parteka ditzala hiriko haurreskolen zerbitzuen inguruan egiten diren azterketak, hobekuntzak eta inbertsioak, haurreskoletako koordinatzaileekin eta Udalbatza osatzen dugun taldeekin.

- 2.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari jardun dezala hiriko familien interesen mesedetan eta berma ditzala Donostiako haurreskolen zerbitzu publikoen beharrak.
- 3.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari ez ditzala publiko egin bermatuta ez dituen zerbitzu publikoak, herritarrek aurreikuspen okerrik egin ez dezaten.
- 4.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, udal taldeekin eta hiriko haurreskoletako koordinatzaileekin elkarlanean, onartu berri den Donostiako Udalaren eta Haurreskolen Partzuergoaren arteko III. Lankidetzarako Protokoloa berriro aztertzeko eta akordiotik kanpo geratu diren zerbitzuak eta irizpideak lantzeko.

Donostian, 2018ko irailaren 20an

Naiara Sampetro Perez  
**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**